

ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENAREN BILAKAERARI  
ETA EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENA (2005)

Erakunde arteko Hitzarmenaren Bilakaera Zaintzeko Batzordea

*Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko Hitzarmenaren (2001eko urrian egin zen) bosgarren xedapenaren e) atalean xedatutakoaren arabera, Hitzarmena sinatu duten erakundeek txosten bat egin behar dute, ekitaldi bakoitzaren amaieran, hitzarmen horren edukiak zenbateraino bete diren neurtu eta ebaluatzeko.*

Emakundek Hitzarmena egin zuten erakundeek eskuratutako informazioarekin eginiko agiri honen bidez, testu bakar batean eta era antolatuan jaso nahi da Hitzarmena sinatu duten erakundeetako bakoitzak idatzitako bilakaera- eta ebaluazio-txosten partzialetan jasota dagoen informazioa<sup>1</sup>, era horretan, Hitzarmenean ezarritako konpromisoen eta jarraibideen betetze-mailaren ikuspegi orokorra emateko.

Hitzarmenak berak ezarritako irizpideari jarraituz, bi zatitan banatu da orain aurkezten den agiri hau. Lehenengo zatian Hitzarmena sinatu duten erakundeek, Hitzarmenaren jardura protokoloan agertzen diren neurriak eta jarraibideak eraginkortasunez aplikatuko direla bermatzeko, 2005. urtean egin dituzten ekintzak jaso dira. Ildo horretan egindako aurreikuspenak zein neurritan bete diren jakiteko kontuan izan behar da erakunde arteko Hitzarmena aplikatzeko neurriei buruz (2005) Bilakaera Zaintzeko Batzordeak 2005eko apirilaren 20an onartutako agiria; izan ere, agiri horretan aipatzen dira Hitzarmena sinatu duen erakunde bakoitzak ekitaldi horretarako aurreikusita zituen neurriak.

Bestalde, txostenaren bigarren zatian, hitzez hitz adierazi dira erakunde bakoitzak, dagokion esparruan, Protokoloaren betetze-mailari buruz landutako txosten partzialetan egin dituen balorazioak.

Gasteizen, 2006ko ekainaren 2an

## **A) BURUTUTAKO EKINTZAK**

### *EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA*

Gaia dela-eta bidezkoa izan denean, lehendakariak, jendaurrean egin dituen agerpenetan, berariaz aipatu ditu emakumeen aurkako indarkeria eta Erakunde arteko Hitzarmena.

Azaroaren 25eko sentiberatze-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartu du, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean konpromiso politikoa, soziala eta pertsonala indartze aldera.

Etxeko tratu txarrek eta sexu-erasoek eragindako heriotza kasuetan erakundeek eman beharreko erantzun-protokoloa aplikatzen eta beste gaitzespen-jarduera mota batzuetan parte hartu du, gainerako euskal erakundeekin batera.

### *EUSKO JAURLARITZAREN HERRIZAINGO SAILA*

Euskal Autonomia Erkidegoko poliziek etxeko indarkeriari eta sexu-askatasunaren aurkako delituei buruz ezagutzen duten informazio estatistikoaren biltze- eta ustiatze-lana koordinatu, homogeneizatu eta sistematizatzeko araudia lantzen jarraitu du.

Lan batzarrak egin dira estatistika polizialean inplikaturako eragile guztien artean, gertakarien egileari buruzko estatistika-aldagaiak ezartzeko; gaia zailtasun handikoa denez, 2006.urtean ere jorratuko da.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen gainean Ertzaintzak ezagutzen dituen arau-hauste penalen biktimei buruzko estatistikak Emakunderi bidaltzen jarraitu du, eta aurreko aldiarekin alderatutako datuak gehitu ditu.

Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan antolatzen dituen sentiberatze-ekintzetan parte hartu du.

Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima batek izan dezakeen arrisku-egoera baloratzeko tresna sortu du EHUKo Kriminologiaren Euskal Institutuarekin batera. Tresna horrek baliagarria izan behar du kasu bakoitzean dauden arrisku adierazleak zehazteko,

arrisku-mailak bereizteko eta maila bakoitzean behar diren babes-neurri polizialak finkatzeko; tresna lehenengo fase batean ari da aplikatzen polizia-etxe guztietan.

Sakelako telefonoen eskaintza zabaltzeko etxeko tratu txarren eta genero-indarkeriaren biktima guztiei, erasotzaileari urruntzeko ebazpen judiziala ezarri zaion kasuetan.

Etxeko indarkeria eta genero-indarkeriaren gaian kalitatea kudeatzeko sistemari buruzko proiektua garatu du.

Etxeko eta genero indarkeriari erantzuteko jardute-prozedurak garatu eta eguneratu ditu, eta araudietan egindako aldaketetara egokitu.

Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimek autobabeserako neurriak ikasteko prestakuntza-programa ezarri du, eta bideo bat eta informazio-liburuxka bat egiten hasi da.

Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimentzat 2003. urtean abian jarri zen etengabeko zaintza-programa garatzen jarraitu du.

Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako prebentzio-jardueren bidez, babes-sistema bat ezarri du.

Fiskaltzarekin lan egiten jarraitu du, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren kasuistikari buruz.

Etxeko tratu txarrei buruz Segurtasun sailburuordetzak emandako 48. zenbakiko Agindua egokitu du legeetan egindako azken aldaketetara (esaterako, Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa).

Ertzaintzaren "Harlax" aldizkari teknikoan emakumeen aurkako indarkeriaren gaia aztertzen duten edukiak sartu ditu.

Genero-indarkeriak sortzen dituen arazoak, eta indarkeria-mota hori gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan nola dagoen eta zer bilakaera izan duen ezagutarazi die herritarrei; horretarako, Herrizaingo Sailaren Prentsa Zerbitzuak informazio estatistikoa zabaltzeko du.

Ertzaintzako kideen artean ere informazioa sustatu du, "Ertzaintza Gaur" izeneko argitalpenaren bidez, ertzainek gehiago jakin dezaten genero-indarkeriak sortzen dituen arazoen gainean.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakundeek nola erantzun behar duten zehazteko Protokoloa aplikatzen parte hartu du.

Eguneratze eta hobetzeko ikastaroei dagokienez, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak izaten direnean nola jokatu behar den erakusteko prestakuntza planifikatzen jarraitu du; ikastaro horiek ertzainei –Segurtasun Sailburuordetzak eskatuta– eta udaltzainei –alkateek hala eskatuta– zuzendutakoak izan dira.

Gaiarekin lotuta dauden eskaletan, kategorietan eta espezializazioetan sartzeko ikastaroetan, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei laguntzeko edukiak sartzen jarraitu du.

#### **ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

Harrera-baliabideen antolaketa eta funtzionamendu-baldintzak arautzen dituen Dekretua egin du, nahiz eta oraindik ez den aurkeztu, Gobernu Kontseiluak onar dezan; izan ere, oraindik egiteko dago Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren derrigorrezko txostena, baina laster egingo da osoko batzarra.

Etxean tratu txarrak edo sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei telefono bidezko etengabeko informazioa eta laguntza eskaintzeko zerbitzua kontratatu eta abian jarri du.

Diru-laguntzak emateko orduan, lehentasuna eman die genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza eta sostengua eskaintzen dizkieten proiektu sozialei.

Diru-laguntzak banatzeko garaian, lehentasuna eman die gizarte zerbitzuetako profesionalei arlo honetako prestakuntza emateko diren ikastaroei.

Eutsi egin die foru-aldundiek eta udalek etxebizitzak eskuratzeko eta etxeko tratu txarren biktimentzako abegi-etxe modura erabiltzeko duten aukera aurreikusten duten zenbait artikulua eta xedapenetan jasota dauden irizpideei. Irizpideok ondokoetan daude jasota: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2004ko azaroaren 26an emandako Aginduaren hirugarren artikuluan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2002ko ekainaren 14an emandako Aginduaren bosgarren artikuluan, eta babes ofizialeko

etxebizitzaren erregimenari buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 11.3. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian.

Eutsi egin dio etxeko tratu txarren biktimentzako etxebizitza gordetzeari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko azaroaren 26ko Aginduaren bigarren artikuluan erabilitako irizpideari, *Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitza gaietan Jarduteko Planean*; gainera, plan horretan honako neurriak jaso dira:

- norberaren etxea trukatzea BOE bategatik
- guraso bakarreko familien kupoan sartzea
- alokairuko BOE zuzenean esleitzea

Erakunde arteko lankidetzarako formulak antolatu ditu, etxeko tratu txarren biktimei behar dituzten egoitza-baliabideak bermatzeko.

Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentiberatze-jardueretan parte hartu du.

Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko sentiberatze-kanpainetan parte hartu du Emakunderekin.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakundeek eman beharreko erantzunaren protokoloa aplikatzen parte hartu du.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalek etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida prestatzen eta finantzatzen lagundu du.

Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratua sortzen parte hartu du.

#### ***EUSKO JAURLARITZAREN JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA***

*Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren eraginkortasuna lortzeko Jardueren protokoloa* bat egin du Lurralde Historiko bakoitzeko. Honako hauek sinatu dituzte protokoloak: Gobernu salako ordezkari batek, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkariak,

Probintzia Auzitegiek, Epaile Dekanoek, Fiskaltzak, Emakundek, Herrizaingo Sailak, udaltzaingoeak, elkargo profesionalek, gizarte zerbitzuek, berdintasunaren alorreko erakundeek eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak.

Aurreko Protokoloen bilakaera zaintzeko batzarra egin da eta oso balorazio ona egin da protokolo horien garapenaren gainean.

Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurrien gaineko Legeari buruzko berariazko prestakuntza-ikastaro bi antolatu dira, epaile, idazkari judizial eta fiskalei zuzenduta, eta 100 lagunek parte hartu dute.

Lege Integralari eta Babes Agindua arautzen duen Legeari buruzko berariazko prestakuntza-ikastaro bat antolatu da, abokatuei zuzenduta. Etxeko indarkeriaren txandan izena emanda zeuden pertsonen nahitaez joan behar izan dute ikastaro horietara.

Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileei zuzendutako ikastaro bat antolatu du, Indarkeriaren aurkako Lege Integralari buruz, eta 20 lagunek parte hartu dute.

Ikastaro bat eman die erakunde judizial horietako kide guztiei, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiak sortu direla-eta.

Etxeko indarkeriaren biktimei babesa emateko agindua arautzen duen 27/2003 Legeari buruzko prestakuntzako ikastaro bereziak antolatu ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritako gizarte-zerbitzuetako teknikarientzat.

Koordinazio Zentroetako tresna informatikoen dotazioa hobetu du, maiatzaren 9ko 513/2005 Errege Dekretua indarrean sartu dela-eta; horren bidez, Koordinazio Zentro bakoitzean izendatutako arduradunak Babes Aginduen Erregistro Nagusian jasotako informazioa eskuratzeko aukera du.

Aplikazio informatiko batez hornitu ditu organo judizialak, Babes Aginduen Erregistro Nagusian jaso beharreko datuak bide telematikoetatik igorri ahal izateko. Hartara, datuok denbora errealean sartu ahal izan dira, betiere, datuon isilpekotasuna eta egiazkotasuna bermatuz.

2005eko ekainaren 29an abian jarri diren eta emakumearen aurkako indarkeriaz arduratu diren hiru epaitegietan (bana hiriburu bakoitzean) azpiegiturak, langileak, eta baliabide materialak eta informatikoak jarri ditu.

Etxeko indarkeriaren edota sexu erasoen biktimenzako laguntza juridikoko Zerbitzua eta ofizioko txanda sortzeko Hitzarmena ebaluatu du, horren Bilakaera Zaintzeko Batzordearen esparruan, akatsak zuzentzeko eta dagozkion hobetze neurriak sartzeko. Hitzarmen hori Legekarien Euskal Kontseiluarekin sinatu da. Era berean, biktimei laguntzeko beste telefono zenbaki bat hitzartu du Abokatuen Elkargoarekin, bakarra Euskal Autonomia Erkidego osorako.

Sailean sortutako taldearen lana areagotu du, Hitzarmena abian jartzeko proposatutako jarduera eta hipotesi guztiak berrikusteko bide arrunt gisa; bertan, Delituaren Biktimari Laguntzeko zerbitzuetako, Laguntza Juridikoko zerbitzuetako eta judizialak ez diren gainerako zerbitzu osagarrietako ordezkariak parte hartzen dute. Talde hori Fiskaltzarekin, Ertzaintzarekin eta gainerako poliziaekin koordinatu da, bai eta Hitzarmenaren Bilakaera Zaintzeko Batzordearekin eta Hitzarmena bultzatzeko erakunde arteko Talde Teknikoarekin ere.

Zuzendaritzaren eta zerbitzu guztien arteko koordinazio batzarrak ugaritu ditu, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen funtzionamendu metodoei dagokienez; hartara, prozesuen homogeneotasuna bermatu da, atzerapenak gutxitu dira eta hutsuneak eta akatsak antzeman dira.

Triptikoak egin ditu, eta justizia.net web orriaren eta beste dibulgazio material batzuen edukiak eguneratu ditu, hartara, etxeko indarkeria eta sexu erasoak gertatzen direnean zerbitzuok eskaintzen duten laguntza ezagutzera ematen jarraitzeko.

Arreta berezia eskaini zaie etxeko tratu txarren eta sexu erasoen alorrean dirulaguntzak eskatu dituzten programa eta jarduerari, preso eta zigortuen alorreko gizarte ekintzako dirulaguntzen Aginduaren esparruan, gaur egun, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren mendekoa. Hala ere, 2005ean, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen alorreko proiektu bat baino ez da aurkeztu, eta ezin izan du dirulaguntzarik lortu, hobeto baloratutako beste proiektu batzuk aurkeztu direlako.

Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen alorreko mintegi bereziak eman ditu Medikuntzako Fakultatean, Auzitegi Medikuntzako ikasgaiari.

Batzarrak egin ditu hainbat eragile juridikoarekin, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen jardueraren esparruan, genero-indarkeriaren gainean gaur egun dagoen arazo aztertzeke asmoz.

Auzitegi medikuen eta Talde Psikosozialen arteko koordinazioa hobetu du eta horien jarduteko protokoloan alderdi eta ñabardura berriak jaso ditu, genero-indarkeriaren aurkako Lege Integrala indarrean sartzearekin batera.

Sexu erasoen edo gehiegikerien eta emakumeen aurkako indarkeriaren kasuetan informazioa biltzeko eta jarduteko protokoloak eztabaidatu eta hobetu ditu, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen jarduketaren esparruan.

#### *EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILA*

*Etxeko tratu txarren aurreko osasun protokoloa* ezagutzera emateari eta sistematikoki ezartzeari buruz 2002. urtetik egin diren ebaluazioekin jarraitu du.

Lehen Mailako Laguntzan eta Osakidetzako ospitaleetan zein pribatuetan tratu txarren aurreko osasun-protokoloa sistematikoki eta ondo betetzea bultzatu du eta horri lehentasuna eman dio.

Osasun-zentroetarako eta ospitaletarako materialak berriz argitaratu ditu.

Indarkeria eta lehen mailako laguntzari buruz argitaratutako materiala berrikusten eta Euskal Autonomia Erkidegoko egoerara egokitzen ari da.

Erakunde arteko talde teknikoak hitzartutako eta Erakunde arteko Hitzarmenaren Bilakaera zaintzeko batzordeak onartutako materiala banatu die osasun langileei eta, behar izan denean, pazienteei.

Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta egin den erakunde arteko sentiberatze-kanpainan parte hartu du.

*Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeari eta Ebaluazioari buruzko txostena (2005). Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeko batzordea.*

---

Erakunde guztien neurri komunetan parte hartu du.

#### **EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA**

Hitzarmenaren Bilakaera zaintzeko batzordeak eta Erakunde arteko Talde Teknikoak egiten duten lana sustatu eta koordinatu du.

*Emakumeen aurkako indarkeriari* buruzko txostena eguneratu du, erakunde arteko Hitzarmenaren esparruan garatu diren jardueri dagokienez eta Bilakaera zaintzeko batzordeak eta Erakunde arteko Talde Teknikoak egindako lanari dagokionez.

Aldiro-aldiri, Emakundek bere web orrian irekitako *Emakumeen aurkako Indarkeria* izeneko sekzioa eguneratu eta osatu du, hartara, erakunde arteko Hitzarmenaren esparruan garatu diren jardueri eta Bilakaera zaintzeko batzordeak egindako lanari buruzko informazio eguneratua eskaintzeko.

*Gizarte zerbitzuetako profesionalek emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta sexu erasoan aurrean jarduteko gida* egiteko prozesua koordinatu du; 2006an argitaratzeko eta ezagutarazteko asmoa dago.

Deustuko Unibertsitateak antolatutako *Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean esku hartzeko Masterrean* lagundu du.

Hitzarmenari lotutako prestakuntza- eta sentiberatze-jarduerak antolatzeko aholkularitza teknikoa eskaini die erakunde publikoei eta pribatuei.

Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentiberatze-jardueretan parte hartu du.

Azaroaren 25eko erakunde arteko sentiberatze-kanpaina koordinatu eta kanpainaren finantziazioan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa koordinatu du eta horren ezarpenean parte hartu du.

Emakunderen diru-laguntzei buruzko dekretuetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko, eta, orobat, indarkeria-mota horren biktimei laguntzeko jardueri lehentasuna emango dieten balorazio-irizpideak sartu dira.

Lankidetz hitzarmena sinatu du Eudelekin, berdintasunaren aldeko eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako EAEko udalerrien sarea - BERDINSAREA abian jartzeko.

Gizarte zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratua koordinatu eta sortzen parte hartu du.

Arartekoaren “*Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn*” izeneko txostenaren edukia aztertzen duen agiria egitea bultzatu eta koordinatu du; agiri horretan Hitzarmena sinatu duten erakundeek hartutako edo hartu beharreko neurriak jaso dira, aipatutako txostenean Arartekoak egindako gomendioekin bat etorrira.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntzeko jaso duen laguntza-programa erregulatuko duen araua prestatzeko lana hasi du.

Gorrentzat etxeko tratu txarren eta sexu erasoen aurrean jarduteko gida egiteko prozesua hasi du.

*Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko Legearen eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren eraginkortasuna lortzeko Koordinazio Protokoloa* egiten parte hartu du eta sinatu du, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantz Sailak babestuta eta koordinatuta; hartara, oinarritzko tresnak lortu nahi dira etxeko edota genero indarkeriaren biktimei eskaintzen zaien laguntzan inplikaturako eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana lortzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriak duen eraginaren gaineko diagnostikoa egin du, *Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko*

*Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeari eta Ebaluazioari buruzko txostena (2005). Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeko batzordea.*

---

*abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren hamahirugarren xedapen gehigarriak agindu bezala.*

Bilakaera zaintzeko batzordeak *Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak izeneko* dokumentua onar dadin sustatu du. Ekarpen bat egin nahi dio gai horretan dagoen eztabaida terminologikoari, eta gutxieneko adostasuna lortu nahi du emakumeen aurkako indarkeriari buruz Hitzarmenean parte hartzen duten erakundeek erabili behar dituzten terminoei dagokienez.

Bi Hitzarmen sustatu ditu Bilakaera zaintzeko batzordean, espezializazioa eta bateraezintasun klausulak bermatzeko, zerbitzu publikoetan etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei zerbitzu profesionalak eskaintzeari dagokionez.

*Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eman beharreko laguntza hobetzeko Erakunde arteko Hitzarmenaren aplikazioaren lau urteko Balantzea* agiria egin du; bertan, Hitzarmena sinatu duten erakundeek egin dituzten jarduerarik garrantzitsuenak nabarmentzeaz gain, erakundeok emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokan lanean jarraitzeko eta ahalegin handiagoa egiteko konpromisoa hartu dute.

#### ARABAKO FORU ALDUNDIA

Administrazioak eta beste erakunde batzuek genero-indarkeriari buruz antolatutako jardunaldietan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

Hitzarmenaren Bilakaera zaintzeko batzordearen, Erakunde arteko Talde Teknikoaren eta Gizarte Zerbitzuen Azpi-batzordearen koordinazio batzarretan parte hartu du.

*Gizarte zerbitzuetako profesionalek emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta sexu erasoen aurrean jarduteko gida* egiten eta finantzatzen parte hartu du; gida hori onartuta dago eta 2006an ezagutaraziko da.

*Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeari eta Ebaluazioari buruzko txostena (2005). Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeko batzordea.*

---

*Etxeko tratu txarren biktimetzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programari buruz egindako erakunde arteko batzarretan parte hartu du.*

Gizarte zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko egin diren erakunde arteko batzarretan parte hartu du.

*Genero-indarkeriarako laguntza integrala, eta indarkeria horren prebentzioa eta desagerpena lortzeko egindako esperientzien bilduma eta informazioa lanean jasotako informazioa eguneratu du eta 2006an ezagutaraziko du.*

Emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko laguntza- eta prebentzio-zentro integrala sortzeko proiektua egin eta onartu du.

Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa eskaintzeko zerbitzua zabaldu du, eskaria gero eta handiagoa da-eta.

Familia-indarkeria jasaten duten pertsonen laguntza espezializatua eskaintzeko dauden gainerako zerbitzuak mantendu ditu: emakumeei zuzendutako orientazio juridikoko zerbitzua, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako harrera-etxebizitzak eta arriskuan dauden adin txikikoen harrera.

Arabako Abokatuen Elkargoarekin egindako lankidetzak hitzarmena garatu du, eta dagozkion aldaketak egin dizkio, etxeko tratu txarren eta sexu eraso biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko.

Ekarpenak egin eta koordinazio batzarrak izan ditu, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduari dagokionez, esku-hartzeko protokoloa eguneratu ahal izateko.

Erakundeek laguntzak emateko egiten dituzten deialdien bitartez genero-indarkeriari lotutako prestakuntza-, sentiberatze- eta prebentzio-jarduerak diruz lagundu ditu.

Elkarlanean aritu izan da Gasteizko Udalarekin *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko jardunaldiak* antolatzeko, eta Batzorde Zientifikoan Aldundiko langileekin parte hartu du.

Gizarte zerbitzuetako eta elkarteetako profesionalei prestakuntza eskaini die, genero-indarkeriako kasuetan esku hartzeko gaiei buruz.

*Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko gida* eguneratu eta berriz argitaratu du, hiru formatu elebidunetan eta 6 hizkuntzatan, Gasteizko Udalarekin duen lankidetzaren hitzarmenaren esparruan: gaztelania, euskara, frantsesa, arabiera, ingelesa eta errumaniera.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen mendeko programa eta zerbitzuetan, neska-mutilei zuzendutako Bisita Zerbitzuarekin jarraitu du; urruntzeko agindua dagoen banantze kasuetan adin txikikoen bisitetarako gurasoen elkartrukeko demanda judizialei erantzuna eman die, ahal izan duen neurrian.

Triptiko bat egin du, Gasteizko Udalarekin batera, erasotzaileei Laguntza Psikologikoa emateari buruz.,

Irakasleei zuzendutako gida baten zirriborroa egin du, prebentzio jarduerekin lotuta, eta Elkarbizitzarako Kontratua gidaliburua ezagutarazi du.

Maskulinitasun eta genero-indarkeriari buruzko jardunaldia antolatu du, Gasteizko Udalarekin batera.

Indarkeriaren biktime diren emakumei zuzendutako Orientazio Juridikoko eta Laguntza Psikologikoko zerbitzuak oztopo arkitektonikorik gabeko lokaletara eraman ditu.

#### **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntzeko esparruan, eta erakunde arteko Hitzarmenari dagokionez, prestakuntza eta sentiberatze jarduerak diseinatu eta eskaini ditu.

Indartu egin du etxeko tratu txarren biktime diren emakumei eta horien kargu dauden seme-alabei zuzendutako baliabideetako bat; horretarako, epe ertain/luzeko harrera zentroa jarri du martxan, beren beregi talde horrentzat, langile adituekin eta 24 orduko

zerbitzua eskainiz. Horrez gain, zentroak pertsona ezgaituei egokitutako instalazioak ditu, mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak ere zerbitzua eskuragarri izan dezaten.

*Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren barruan, genero-indarkeriaren adierazleei buruzko lan-taldea sortu du, Behatokia osatzen duten hainbat erakundetako ordezkariekin. Hauek izango dira Talde horren zereginak: 1) Datuak eskuratzeko aukera ematen duten informazio-iturriak identifikatu eta haietara jotzea. 2) Gaur egun eskura dauden datuak ezagutu eta biltzea. 3) Adierazleak diseinatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren garrantzia homologatu daitekeen eta denboran erkatu egin daitekeen oinarri batean irudikatze aldera.*

Emakumezkoei zuzendutako diru-laguntzak arautzen dituen Foru Dekretuko balorazio-irizpide bezala lehentasuna eman die abegia eta aholkularitza juridikoa zuzenean eskaintzeko dituzten jardueri. Horretarako, soilik Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeei zuzendutako Foru Dekretua egin du.

Familien Topagune Programaren eskaintza indartu du, eta, horretarako, beste kontratu bat adjudikatu du, zerbitzua eskaintzeko ordutegia zabalduz.

Gizarte zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratua sortzen parte hartu du.

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden abegi-zentroak antolatzeko eta funtzionatzeko baldintzak eta irizpideak zuzentzen dituen araudia prestatzen lagundu du. Araudi hori oraindik prestatzen ari da.

*Gizarte zerbitzuetako profesionalek emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta sexu erasoan aurrean jarduteko gida egiten parte hartu du; gida hori argitaratzeko eta banantzeko dago.*

Azaroaren 25eko erakundeen arteko sentiberatze-kanpainaren finantziazioan parte hartu du.

Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

*Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeari eta Ebaluazioari buruzko txostena (2005). Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeko batzordea.*

---

*Etxeko tratu txarren biktimenezako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programaren ezarpenean parte hartu du.*

Deustuko Unibertsitateko Politika Zientzietako eta Soziologiako Fakultateari agindutako bi azterlan egin ditu, hain zuzen, honako hauek: *Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako abegi-etxeen eta egonaldiko zentroen erabilera eta eskaria, eta Familien Topaketarako Zerbitzuaren erabilera eta eskaria.*

Inkesta bat egin du emakumeen aurkako etxeko indarkeriari buruz; 2005eko abenduaren 31n amaitzeko dago, eta emaitzen eta ondorioen analisisa egiten ari da.

*Bizkaiko Lurralde Historikoko Baliabideen Mapa* egin du; bertan, familia-indarkeriaren biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntzan inplikaturako erakunde guztiei buruzko informazioa jaso da, Bizkaiko 112 udalerrietan dauden baliabideekin kontaktuan jartzeko bidea erraztuz.

Bi ikastaro diseinatu ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren *2006ko Barne Prestakuntza Planaren* barruan. Ikastaro horiek Gizarte Ekintza Sailaren Umeen, eta Emakume eta Familiarentzako Zerbitzuetako teknikariei zuzenduta daude.

*Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei eta euren kargu dauden seme-alabei zuzendutako Familietan Esku-hartzeko Programa Espezializatua* diseinatu du. Programa hori 2006an hasiko da martxan eta horren bidez, laguntza psikosoziala eskainiko zaie indarkeriaren biktima diren emakumeei eta erasotzailea bizi den etxeetan jarraitu edo horietara itzuli nahi dutenei, bai eta familia horietan bizi diren adin txikikoei; programaren bitartez, pertsona horiek gerta daitezkeen krisi egoerei aurre egin ahal izango die eta trebetasun eta baliabide batzuk bereganatu ahal izango dituzte, egoerak egoera irtenbiderik egokiena lortzeko.

## **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

Gizarteratzeko Zerbitzuaren barruan, lurralde mailako Larrialdietako Zerbitzu bat abian jarri du, hartara, etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimei eta, orobat, larrialdiren batean dauden pertsonen informazioa, sostengua eta laguntza modu profesionalean eman ahal izateko.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei eta elkarteei zuzendutako Inbertsioen Planerako deialdia egiteko foru-dekretua egin du; dekretu horretan, abegi-etxeak hobetzeko laguntzak jaso dira.

Gizalde Planaren baitan, laguntza psikologikoa emateko programa, sentiberatze- eta prestakuntza-ekintzak, eta lurralde mailan etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei eskaintzen zaizkien abegi-baliabideak aztertu ditu.

Gizalde Planaren bitartez, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan prebentzio- eta sentiberatze-jarduerak egiten dituzten edo biktimei laguntza eta babesa eskaintzen dizkieten elkarteei zuzendutako diru-laguntzak bultzatu ditu.

Gizarte zerbitzuen ohiko ordutegitik kanpo egindako larrialdiko harrera guztien bilakaeraren zainketa koordinatu du SOS/Deiak-ekin.

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeek gizarteko babes zerbitzuak eskuratzeko dituzten aukerak aztertu ditu: Oinarrizko Errenta, laneko programa okupazionalak, gizarte programak, eta abar.

Lurralde mailako lan-batzordean parte hartu du, abokatuekin, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin, Laguntza Juridikoko Zerbitzuarekin, Ertzaintzarekin, udaletako gizarte-langileekin eta bestelakoekin.

Ertzaintzaren, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren eta Laguntza Juridikoko Zerbitzuaren arteko koordinazio-bilerak sistematizatu ditu, eta aldian-aldian udal-zerbitzuarekin bilerak egin ditu, hartara, irizpideak bateratu, zailtasunak aztertu, aldaketak proposatu eta abarrerako.

Jarduteko protokoloak egiten parte hartu du, Emakundek deitutako lan-mahaietan erakunde arteko koordinazioa hobetzeko.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza-jarduerak egin ditu, udaletako gizarte zerbitzuaren profesionalentzat.

Prestakuntza-jarduerak egin ditu biktimei sostengua eman eta laguntzeko figura sortzeko; figura horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoan dagoen babes-sarea hobetu du.

*Gizarte zerbitzuetako profesionalek emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta sexu erasoen aurrean jarduteko gida finantzatzen parte hartu du; gida hori argitaratzeko eta banantzeko dago.*

Azaroaren 25eko erakunde arteko sentiberatze-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartu du.

Emakumeen aurkako indarkeriaz sentsibilizatzeko hitzaldiak eta bestelako jarduerak antolatu ditu.

*Etxeko tratu txarren biktimenezako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa betearazi du.*

Datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartu du, hartara, informazioa sistematizatu ahal izateko eta Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutu ahal izateko.

Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurreko protokoloaren ezarpenean parte hartu du.

Tratu txarren arazoari buruzko mahai-inguru batean eta irrati saioetan parte hartu du.

Arautuko laguntzak lortzeko betekizunak betetzen ez dituzten biktimei prestazio ekonomikoak eskaini dizkie.

Tratu txarren gaineko azterlan bat egin du Deustuko Unibertsitatearekin batera.

Batzarrak egin ditu Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzarekin, biktimei arreta egiteko 24 orduz dagoen telefonoari buruz, bai eta Arartekoko teknikariekin, erakunde arteko Hitzarmenaren bilakaera zaindu.

Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Sailaren Gizarteratzeko Zuzendaritzaren web orria sortu du.

#### **EUDEL / EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA**

EUDELen web orriaren bidez, erakunde arteko Hitzarmen hau eta EUDELen ordezkaritza duten partaidetzako organoek garatzen eta lantzen dituzten gainerako jarduerak eta protokoloak ezagutzera eman ditu.

Arlo honi lotuta dauden lege-xedapenen ondorioz adosten eta xedatzen diren ekintzak gauzatzerakoan zuzeneko ardura duten udal-langileen prestakuntzarako guneak proposatzen jarraitu du.

Arlo honetan aurkeztu diren legegintzako ekimenak eta gainerako testu arau-emaeleak aztertu ditu, eta haiek hobetzeko ekarpenak eta oharak egin ditu.

EUDELen web orriaren bidez, *Gizarte zerbitzuen eremuan, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloa* ezagutzera eman du.

EUDELen web orriaren bidez, *Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa* ezagutzera eman du.

Datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartu du; hartara, izan daitezkeen indarkeria kasuak hobeto koordinatzeko eta kasu bakoitza dagokion erakundera hobeto bideratzeko, eta Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutzeko.

Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurreko protokoloa ezagutarazi eta horren ezarpenean parte hartu du.

Berdintasunaren aldeko eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako udalerrien sarea - BERDINSAREA sortu du.

Erakunde arteko Hitzarmenean jasota dauden batzordeetan eta azpibatzerietan parte hartu du.

*Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeari eta Ebaluazioari buruzko txostena (2005). Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeko batzordea.*

---

*Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko toki protokoloak gauzatzeko jarraibideen gida bat egitea kontratatu du.*

Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko toki protokoloak gauzatzeari buruzko bi eztabaida-gune antolatu ditu udalerriekin.

### **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN FISKALTZA**

Erabaki diren zuhurtasunezko neurriak berehala jakinarazi dizkio Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari, hartara, neurriok betetzen diren zaintzeaz arduratzen diren poliziako agintariek behar bezala jasota izan ditzaten eta betetzen direla kontrola ditzaten.

Ertzaintzaren lurralde-burutzekin bilerak egin ditu hilero, hartara, salatu diren etxeko tratu txarren kasuen artean, arriskua dela-eta larrienak diren kasuen bilakaera zaintzeko eta, hala behar izan denean, zuhurtasunezko neurri zorrotzagoak eskatu ahal izateko.

Erakunde arteko Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentiberatze-jardueretan (ikastaroetan, jardunaldietan, hitzaldietan eta horrelakoetan) parte hartu du.

## **B) JARDUERA PROTOKOLOAREN BETETZE-MAILAREN BALORAZIOA**

### **EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA**

*“Protokoloan ezarritako jarduera materialak eskumen bereziak dituzten sailei dagozkie, baina, hala ere, Lehendakaritzak ahalegina egin du bere gain hartutako konpromisoak betetzeko, normalean instituzio guztientzat generikoak diren jarduerak egiteko, alegia.*

*Gauzatutako neurri berezien artean nabarmendu egin behar dira Lehendakariak publikoki egin dituen agerraldietan emakumeen aurkako indarkeriari buruz beren beregi egin dituen adierazpenak eta aipamenak; esate baterako, Inbestidura Ekitaldian, berdintasuna Gobernuaren zutabeetako bat zela esan zuen, eta Gobernuaren Kudeaketa Balantzearen aurkezpenean eta Gobernuaren programaren aurkezpenean ere, beren beregi aipatu zituen Erakunde arteko Hitzarmena eta etxeko tratu txarren biktimak. Era berean, Emakumeen Nazioarteko Eguna zela-eta, Gobernuak Adierazpen Institutuzional bat egin zuen eta bertan aipamen berezia egin zien emakumeen aurkako tratu txarrei.*

*Bestalde, Lehendakaritzak azaroaren 25eko sentiberatze-kanpainan parte hartu du eta kofinantzatu egin du; horri esker, gaiari buruzko materialak egin ahal izan dira. Kanpaina horretatik kanpo ez denez materialik egin, Lehendakaritzaren parte hartzea azaroaren 25eko kanpainara mugatu da.*

*Ez da ikastaroetan edo sentiberatze kanpainetan parte hartu, 2005. urtean antolatutakoak Lehendakaritzatik kanpoko jarduketa-alorretan ari diren profesionalentzat izan direlako.”*

### **EUSKO JAURLARITZAREN HERRIZAINGO SAILA**

*“Protokoloaren betetze-mailaren balorazioa ona da.*

*Erakundearen ikuspegitik, Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan egin dituen sentiberatze-ekintzetan parte hartu du Herrizaingo Sailak, eta, orobat, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean.*

*Prestakuntzari dagokionez, Herrizaingo Sailak hainbat ikastarotan eta jardunalditan hartu du parte, eta Udalek, Justizia Sailburuordetzak eta abarrek eskatutako hitzaldiak eman ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Ikastegiak ikasleei etxeko tratu txarren eta sexu erasoen arloko prestakuntza ematen jarraitu du: ikastaroak eman dira polizi prestakuntzaren maila desberdinetan, eta horietan alderdi soziologiko eta psikologikoei, eta zigorrei edo kasu horien tratamenduari buruzko edukiak eskaini dira: prestakuntza hori*

jaso duten ikasleak 1.247 izan dira. Gainera, genero indarkeriari buruzko eguneratze eta sakontze ikastaroak eman zaizkie Ertzaintzaren Unitateetako buru diren 58 arduradunei. Babesari dagokionez, biktimek bizi duten arrisku egoera baloratzeko tresna sortu da, eta biktimak tratatzeko jarduketa-prozedurak garatu eta eguneratu dira, araudi aldaketetara egokituz. Gainera, biktimei zuzendutako autobabes neurriei buruzko bideoa eta informazio-liburuxka egiteko lanak egin dira. 2005. urtean, telefonia eskaintza zabaldu zaie etxeko tratatu txarren eta sexu erasoen biktima guztiei, eta, guztira, 144 telefono banatu dira (13 Araban, 58 Gipuzkoan eta 73 Bizkaian), Horrez gain, iaz, horri dagokionez ezarritako protokoloa betez, 16 kasutan (10 Gipuzkoan eta 6 Bizkaian), Herrizaingo Sailak biktima etengabe zaintzeko babes-zerbitzu bat kontratatu zuen.

Familia-arloko gertakariak prebenitzeko zereginei dagokienez (gehienbat emakumeen aurkako indarkeria prebenitzera zuzenduta daudenak), zeregin horretan aritzen diren Ertzaintzaren Herritarren Segurtasunerako Alorreko agenteek egiten dituzten orduak %203 hazi dira; hala, 2005. urtean 38.247 ordu izan dira, eta, 2004. urtean, berriz, 12.626 ordu.”

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 2005. urterako proposatutako neurri guztiak betearazi ditu, beraz, balorazioa oso positiboa da. Neurrietatik, beharbada, bat nabarmendu behar da: etxeko tratatu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei zuzendutako etengabeko laguntza eskaintzen duen Telefono zerbitzua; horri esker, telefono zenbaki bakarra ezarri ahal izan da EAE osorako, lehen zeuden zenbaki ugarien ordeaz. Zerbitzuak orain arte oso ondo funtzionatu du eta emakume horiei zuzendutako baliabideen lurralde arteko koordinazioari lagundu dio.

Halaber, etxeko tratatu txarren biktima diren emakumeei zuzendutako harrera-baliabideak arautuko dituen Dekretua aipatu behar da; izan ere, euskal administrazio publiko guztiek ahalegin handia egin dute adostasuna lortzeko eta irizpideak bateratzeko, eta, laster, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari aurkeztuko zaio, irizpena eman dezan. Dekretu horren ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak beren beregi emakumeei zuzendutako baliabide bat sortuko du, hain zuzen, tratatu txarrak jasateaz gain, buruko gaixotasunak edo drogamendekotasuna bezalako arazo sozialak dituzten emakumeei zuzendutako baliabidea. Hasierako tramiteak 2006. urtean bete beharreko neurri bezala proposatuko dira.

*Bukatzeko, esan behar da etxebizitzaren alorrean indarrean dagoen araudiari gehitutako neurri horiek aukera eman behar dutela etxeko tratu txarren biktima diren emakumeak etxebizitza lortzeko oinarrizko eskubideaz balia daitezen. Eskubide hori indartu egingo da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren Agindua aplikatzen denean; horren bidez, genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren alorrean ekintza positiboko neurriak bultzatuko dira, eta, gaur egun, zirriborroa tramitatzen ari da.”*

#### **EUSKO JAURLARITZAREN JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

*“2005. urtean Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak Erakunde arteko Hitzarmenaren esparruan etxeko tratu txarraren eta sexu erasoen biktima diren emakume guztiei laguntzeko aurreikusita zeuden ekintza guztiak egin ditu.*

*Beste erakunde batzuen lankidetzarekin egin diren jardueretan, erakunde horiek interesa erakutsi dute eta prest azaldu dira beren gain hartutako konpromisoak betetzeko, aurreko urteetan bezala, eta, hori dela-eta, gauza asko lortu dira, besteak beste, genero-indarkeriaren arazoari eraginkortasun gehiagoz ekiteko ahaleginak batzen dituzten operadore juridikoen eta sozialen arteko koordinazioa.*

*2005. urtea oso emankorra izan da, Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriak buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren ondorioz egindako jardueren dagokienez. Emakumeenganako indarkerian espezializatutako epaitegi berriak sortzeko egin den ahalegina da jarduketarik garrantzitsuenak, bat hiriburu bakoitzeko; gainera, jurisdikzio horri lehentasuna eman zaio besteen aldean.*

*Beraz, positibotzat baloratu da Jarduteko Protokoloaren betetze-maila, eta indartu egin da gure Erkidegoan etxeko eta genero indarkeria desagerrarazte aldera lan egiteko konpromisoa.”*

#### **EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILA ETA OSAKIDETZA/EOZ**

*“Hauek dira lehen mailako atentzioko osasun-zentroetan eta Osakidetzaren ospitaleetan 2005. urteko betetze-mailari buruz egin den aurreneko inkestaren emaitzak. Protokoloa betearazi behar da, batez ere, ospitaleko larrialdietako zerbitzuetan, era horretan, “ohitura” bilakatu dadin, hori nahitaezkoa baita jardun mediko egokiaren lehentasunezko zerbitzuen eskaintzan. Era berean, Lehen Mailako Laguntzaren alorreko profesionalen artean osasun Protokoloa gehiago ezagutarazten jarraitu behar da; izan ere, horixe egin da 2005. urtean,*

Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeari eta Ebaluazioari buruzko txostena (2005). Erakunde arteko Akordioaren Bilakaera zaintzeko batzordea.

---

Osasun Sailaren Lurralde Zuzendaritzen eta Osakidetzako Eskualde Zuzendaritzen bitartez.

**Etxeko tratu txarrak gertatu direnean osasun Protokoloan jasotako jarraibideak bete dira?**

|                                                     | <b>Zentro<br/>kop.</b> | <b>%</b>   |
|-----------------------------------------------------|------------------------|------------|
| <i>Bai, kasu guztietan.</i>                         | 61                     | 25         |
| <i>Bai, kasu batzuetan</i>                          | 16                     | 7          |
| <i>Ez</i>                                           | 6                      | 2          |
| <i>Ez da kasurik egon</i>                           | 115                    | 48         |
| <i>Ez dakit</i>                                     | 12                     | 5          |
| <i>Ez du erantzun</i>                               | 32                     | 13         |
| <b>INKESTA EGIN DUTEN OSASUN ZENTRO<br/>GUZTIAK</b> | <b>242</b>             | <b>100</b> |

#### EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

“Emakunderen helburua bultzatzea da, ez etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei zuzeneko laguntzarik ematea; hargatik, ez du epaitzeko behar adina osagairik, biktimei dagozkien arloan laguntza zuzenean emateko ardura duten profesionalek protokoloa, esku hartzeko alor ezberdinetan, zer neurritaraino bete duten balioetsi ahal izateko; honako alorretan hain zuzen: osasuna, polizia, epaileak, Abokatuen Elkargoak eta gizarte zerbitzuak.

Hala ere, Institutuak EHUren laguntzaz egin duen EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Jarduketa Planaren ebaluazioei esker, Erakunde arteko Hitzarmenaren aplikazioaren ondorioz gauzatu diren neurriei buruzko informazioa dugu, hain zuzen ere aplikatzen hasi zenetik 2004. urtera artekoa. Harrezkero igaro den denbora kontuan izanik, eta esku artean ditugun datuen arabera, nabarmendu behar dugu Hitzarmena sinatu duten erakundeek, guztira, 434 jarduera egin dituztela, 2002. urtetik 2004. urtera, bakoitzak dagozkion eskumenekin bat etorrira: 109 jarduera 2002. urtean, 145 jarduera 2003an eta 180 jarduera 2004an; jarduera kopuruak urtean %30 egiten du gora. Gainera, esan dezakegu Hitzarmena sinatzeak katalizatzaile lana ere egin duela, euskal botere publiko

guztiek gai horretan parte har dezaten. Izan ere, Hitzarmena sinatu duten erakundeek zein gainerako euskal erakundeek egindako jarduerak aztertzen badira, Hitzarmena sinatu zenetik hona ikusi ahal izan dugu Erkidegoko erakunde guztiek emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko egindako jarduerak nabarmen ugaritu direla. EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Jarduketa Planaren ebaluazioan jasotako informazioaren arabera, 2001ean 110 jarduera egin ziren, emakumeen aurkako indarkeria beren beregi aztertzen duen Planaren azpiatalarekin bat etorrira, eta 2004an 224. Hau da, Hitzarmena benetan abiatu baino urte bete aurretik egindako jardueren halako bi baino gehiago egin dira 2004. urtean.

Erakunde arteko Hitzarmena sinatu zenetik, hori aplikatze aldera egin diren jarduerak zein diren, nork egin dituen, norentzat egin diren, zenbat kostatu izan diren eta abar zehatzago jakiteko, Hitzarmena ebaluatzeko urtero egiten diren txostenetara jo behar dugu. Txostenok Emakunderen Dokumentazio Zentroan eta hurrengo web orrian daude eskuragarri: [www.emakunde.es](http://www.emakunde.es).”

#### BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

“Emakume eta Familiarentzako Zerbitzuan etxeko indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntza ematen jarduten dugun profesionalok zera esan dezakegu Hitzarmena betetzeari dagokionez:

Gizarte Zerbitzuak. - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jotzen duen emakumeak laguntza eta informazioa jasotzen du. Eskura dituen baliabideen berri ematen zaio, eta laguntza ematen zaio egoera emozionalari dagokionez. Zerbitzu berezi horietara bideratutako kasuei dagokionez, ez dira beti betetzen Hitzarmenean ezarritako txostenak.

Foru zentroetan hartutako emakumeei dagokionez, laguntza ekonomikoak tramitatzeko eta jarduerak koordinatzeko oinarrizko gizarte zerbitzuek eskainitako laguntza ona da, eta, orokorrean, azaldutako arazo edo egoeren aurrean erantzun azkarra ematen da.

Abegiko baliabideei dagokionez, irregulartasunak izan dira arlo horretan eskumena duten udal batzuen jardueran; esate baterako, emakumeei ez zaie exijitu salaketa bat jartzea edo betekizun hori ez da betearazi, edo udalerrian bizi arren bertan erroldatuta ez dauden emakume etorkinak ez dira onartu, edo haurdun dauden emakumeak baliabide horietatik kanpo utzi dira, mendekotasun egoeran dauden emakumetzat hartzeagatik, edo noizbait prostituzioan aritu izan diren emakumeak ez dira hartu; izan ere, hori ez dator bat gai honi

dagokionez ezarrita dauden gomendioekin. Hala ere, urtean zehar, jarduketa horietako batzutan aldaketak egon dira.

Horri dagokionez, esan behar da udalerri batzuen harrera-baliabideak ez direla baliabideok behar dituzten biktimei erantzuna emateko erabiltzen ari, eta larrialdiko harrerarako foru zerbitzuan udalerri horietatik etorritako emakume kopuru handia hartzen ari dela. Gainera, kasu batzuetan, larrialdiko harrerarako foru zerbitzutik egonaldi ertain edo luzeko zentro batera joan behar izan direnean, emakumeok beste foru baliabide batean hartu behar izan dira.

Egonaldi ertain edo luzeko zentroetan sartzeko eskaerak kudeatzeari dagokionez (larrialdiko harrerarako zerbitzutik ez datozenean), kasu batzuetan, tratu txarren biktima izan diren emakumeen eskaerak tramitatzen dira, baina, udal mailan kasu horietarako dauden baliabideak erabili gabe (esate baterako, adin txikikoak bere kargu zituen emakume bati ez zitzaion baliabideotan sartzeko aldeko irizpena eman, bere egunean ez zitzaiolako BA eman, nahiz eta tratu txar egoera jasan zezakeelako alegatu).

Emakume eta Familiarentzako Zerbitzu Berezia. - Beren kargura seme-alabak dituzten edo horrelakorik ez duten emakumeentzat dagoen larrialdietako zerbitzuari eutsi zaio. Zerbitzuak 12 plaza ditu eta, bertan, etengabe, langile espezializatuak daude, hartara, etxeko tratu txarren biktimei eta haien seme-alabei hasiera bateko laguntza eman ahal izateko. Arazo horri ondo egokitutako laguntasun zerbitzuak eta segurtasuneko neurriak eskaintzen dituzte, eta, horrenbestez, zerbitzu horrek zubi-lana egiten du pertsona horiek beste abegi-baliabide batzuetara sartu ahal izateko, hala behar den kasuetan. 2005. urtean 94 sartu dira baliabideotan (88 emakumerekin) eta horrek erakusten duenez, pixka bat behera egin du 2004. urteari dagokionez (%6 gutxiago). Horietatik 38 etorkinak izan dira, hau da, %43,67% (2004. urtean %37,76 izan ziren) eta datu hori oso esanguratsua da. Artatutako kasuen ezaugarriei dagokienez, gai horrekin lotuta, gero eta gehiago dira beste arazo batzuekin agertzen diren emakumeen kopurua: esaterako, gaigabezia larriak eta toxikomania aktiboak. Horien aurrean, baliabide askok ezin dute erantzun egokia eskaini; holakoetan zentro berezietara bideratu behar dira, baina, horiek gutxi dira, daudenak gainezka daude eta zentroetan sartu ahal izateko itxaron zerrendak luzeak dira.

Era berean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik iritsi diren abegi-eskaera guztiak aintzat hartu dira, eta, emakumea hartu ondoren, banan-banakako plana prestatu da haren egoera, arazoak eta baliabideak aintzat hartuta. 2005eko urriaren 1etik, BFAren Emakume eta Familiarentzako Zerbitzuak kudeatutako egonaldi ertain-luzeko harrera-baliabideetako

*bat beste eraikin batera aldatu da; orain, guztira, 26 plaza ditu, eta, horietatik, gutxi gorabehera 10 plaza emakumeentzat dira eta 16 seme-alabentzat. Baliabide horretan familia giroko indarkeriaren biktima izan diren emakumeak hartzen dira eta prestazio gehiago eskaintzen du; horretarako beste lankidetzak-hitzarmen bat egin da.*

*Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Galetako Sailak genero indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako Etxebizitza Babestuaren alorreko Jarduketa Plana abiatu duenetik, hiru emakume izan dira onuradun eta alokairuko etxebizitza esleitu zaie zuzenean; emakume horiek foru zentro batean zeuden ingresatuta euren seme-alabekin eta amaituta zuten harrera-baliabide batean egin daitekeen gehienezko epea, baina, euren egoera hobetzeko aukera emango zien etxebizitzari gabe zeuden. Horri dagokionez, tramiteak arindu beharra ikusi da, tramiteok behin zentroan egoteko epea amaitu denean hasten direlako eta horren ondorioz gehiegi luzatzen direlako harrera-baliabideetan egindako egonaldiak. Etxebizitza eskuratu ahal izatea eta baliabide ekonomikoak edukitzea dira autonomiaren giltzarriak.*

*Babes aginduari buruzko Legea eta dagozkion koordinazio protokoloak indarrean sartu direnetik, etengabeko harremana egon da Koordinazio Zentroarekin/Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin. Laguntzeko neurriei eta gizarte-babesari buruzko txostena bidali zaie Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeei abegi egiteko dituen zentroetan babesteko aginduekin sartuta dauden emakume guztiei; era berean, irteten direnean edo beste harrera-baliabide batera bideratzen direnean, beste txosten bat bidaltzen da, egindako jarduera jakinaraziz. Gero, gizarte zerbitzuen alorrean, indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko koordinazio protokoloan ezarritakoarekin bat etorrita, "Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko Hitzarmenaren" eranskinean jasota dagoen txostena ere bidaltzen da. Horri dagokionez, gorabeherak antzeman dira programa informatikoak dituen zailtasun teknikoengatik; programa horren bidez, epaitegiek emandako babes-neurriei buruzko informazioa jasotzen du Koordinazio Zentroak. Izan ere, aginduok ez dira beti jakinarazten eta Koordinazio Zentroak ez du izaten babes agindu guztien berri. Horren ondorioz, batzuetan, gertatu izan da babes agindua dagoela jakin izatea gure zentroetako batean ingresatu den emakumeak agindu horren kopia aurkeztu duenean.*

*Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia Bizkaian genero indarkeriaren alorrean lan egiten duten hainbat erakundek eta elkartek parte hartzen dute. Erakunde horren helburua informazio sistema bat egitea da, Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeria egoerak zaintzeko eta horien bilakaeraren zaintzeko gaitasuna duena. Halaber,*

tratu txarren alorrean dauden erakunde-politiken eraginaren bilakaera zaintzen da, horien garapen, ezarpen eta kaltetutako herritarren gain duten ondorioei dagokienez; hartara, dauden baliabideak benetako beharrianetara egokitu nahi dira. Organo horrek etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko Erakunde arteko Hitzarmenean jasota dauden jarduerak koordinatu eta osatuko ditu.

Era berean, informazioa biltzeko fitxa berria zehaztuta (tresna homogeneous da EAE osorako), behar-beharrezkotzat jo da tresna hori gizarte zerbitzu guztien artean ezagutaraztea, aplikatu dadin. Bigarren urrats batean, sistema bateratua sortzea, gizarte zerbitzuen esparruan datuak biltzeko eta ustiatzeko; horren bidez, arazoaren benetako ikuspegia izango genuke eta baliagarria izango litzateke jarduteko politikak bideratzeko.

Arlo Judiziala – Oso positiboki baloratu da emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegi espezifikoa martxan jartzea, ekainaren 29an.

Bestalde, arazo batzuk antzeman dira. Hauek dira: Babes aginduak emateari dagokionez, horiek gutxitan ematen dira biktimak jasandako tratu txarra psikologikoa denean. Batzuetan agintzen diren neurri zibilak eta penalak kontraesankorrak dira, eta arriskua ekar dezakete emakumearentzat eta adin txikikoentzat, zentroetan ingesatuta daudenean (esate baterako, bisita erregimenekin eta urruntzeko neurri eta komunikatzeko debekuarekin zerikusia dutenak). Larrialdiko harrerarako foru zerbitzuaren zuzendaritza auto batean jaso zen, erabat konfidentzialak izan behar denean. Oro har, biktimak ordu gehiegi eman behar izaten dute epaitegietan, eta horrek euren bigarren mailako biktimizazioa areagotzen du.

Abokatuen Elkargoa.- Espezializatutako Ofizioko Txandak jardura berezia egiten du biktimei letratuaren laguntza eskaintzeko; zeregin hori ezagutzera eman da, eta, hartara, biktimei laguntza hobe eskaini ahal izan zaie, eta, beraz, txanda indartzea oso onuragarria izan da.

Abokatuen arteko lankidetzak oso ondo baloratzen da, eta, batez ere, babes gabeko egoera batean ingesatu diren emakumeen kasuan, baliabide ekonomikorik edo sozialik gabe, eta, sarritan, baliabide pertsonalik gabe, bizimoduari aurre egin ahal izateko. Baina, batzuetan, abokaturen batek eragozpenak izan ditu, eramandako kasuari buruzko informazioa emateko eta egindako jarduerak koordinatze aldera Zerbitzu honekin elkarlanean aritzeko. Bestalde, agerian geratu da poliziaren egoitzetan aholkularitza

ematerakoan abokatuak ez direla beti bertaratu, eta telefono bidezko laguntzak zail egiten du zerbitzu hau behar den bezala eskaini ahal izatea.

Era berean, beharrezkotzat jotzen da Espezializatutako Ofizioko Txandatik emandako abokatu-laguntza zabaltzea eta abokatua bertaratzea, garrantzitsutzat jotzen delako abokatua bertan izatea bermatu beharra.

Arlo poliziala – Oro har, ikus daiteke poliziak egoki jardun duela; emakumeak larrialdiko harrera-zentroetara eraman behar direnean, badakite nola jardun behar den, era koordinatuan lan egiten dute biktima babestua den kasuetan, eta polizia-etxeetatik eta indarkeria ataletik dagoen harremana ona da; hartara, gorabeheraren bat gertatu izan denean, egoera aztertu egin da eta dagokion konponbidea aplikatu da.

Horrela, bi kasutan zera gertatu zen: bi emakume Ertzaintzaren polizia-etxera joan ziren, larrialdiko zentrora eraman behar zirelako, baina, ez ziren berehala eraman, ez zelako egokitzen jo, nahiz eta emakumeetako batek babes agindua onartua zuen; hala ere, arduradunei gertatutakoaren berri eman eta gero, erabili beharreko jardunbidearen gaineko jarraibideak eman ziren.

Kasu batzuetan ingresatutako emakumeei ez zaie babes aginduaren eskabidearen kopia eman, baina, egia da ere, ez dela horrelakorik antzeman azkeneko hilabeteetan.

Kasu bati arreta egiterakoan udaltzaingoak eta Ertzaintzak parte hartu dutenean, koordinazio falta antzeman da bi polizien artean.

Udaltzaingoak bere gain hartutako kasu batean (salaketa horri aurkeztu zitzaion eta babes agindua eskatu zitzaion), atzerapen bat egon zen atestatua epaitegiari bidaltzerakoan, aldez aurretik erasotzailea atxilotu behar zelakoan. Horren ondorioz, atzerapen handia egon zen eta biktimak bere burua babes gabe ikusi zuen.”

## EUDEL / EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

Oso positiboki baloratu da 2005. urteko protokoloan aurreikusitako jarduerak bete izana.